

**LARRIALDIETAKO ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUA
FUNCIONAMIENTO DEL SERVICIO DE URGENCIAS**

Debagoieneko Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzuan zaude, eta gure unitateko funtzionamendu-arau batzuk azaldu nahi dizkizugu, uste dugulako pazienteek nahiz senideek ondo ezagutu behar dituztela.

Osasun-arreta egokia eta eraginkorra lortzeko asmoz, unitateko talde osoa zuri laguntzeko dago hemen.

Larrialdietara iristean, esperientzia handiko osasun-langileek baloratuko dute bertara etortzeko izan duzun arrazoia (edo senideak duena); horrela, une horretako osasun-egoera aztertuta, dagokion larritasun-maila ezarriko da. Haren arabera, leku batera edo bestera bidaliko zaituzte/dute (itxarongela, boxak, kontsulta,...).

Hasierako azterketa horri esker, larritasun-mailaren araberrako osasun-arreta eskaini dezakegu; izan ere, larritasunak finkatzen ditu lehentasunak; bertaratzeko hurrenkera ez da zertan arreta-hurrenkerarekin bat etorri behar.

Pazientea box-ohe batean baldin badago, informazioa emango dizugu lehenengo ebaluazioa egin eta gero, eta senide edo pertsonaren bat egon ahal izango da haren ondoan boxean. Ondoa dagoenak pazienteari inolako aldaketarik sumatuz gero, horren berri eman dezala, mesedez.

Itxarongelan baldin bazaude, erizainak eta/edo medikuak deituko dizute kontsultara joateko; bitartean itxarongela horretan egoteko eskatzen dizugu. Hor zaudela, aldaketarik sumatzen baduzu, edo okerrera eginez gero, abisatu iezaguzu.

Baliteke miaketa osagarriren bat egin behar izatea (odol-analisiak, erradiografiak, eta abar). Halakoetan, Zerbitzuan eman beharreko denbora-tartea luzatuko da.

Kontuan hartu Larrialdietan igaro beharreko denbora osasun-taldeak osasun-egoera baloratzeko eta beharrezko osasun-arreta emateko behar duena dela.

Gure konpromisoa da zu ahalik eta ondoen zaintzea eta kalitateko zerbitzua eskaintzea. ahal duzun neurrian, lagun iezaguzu hori horrela izan dadin.

Usted se encuentra en el Servicio de Urgencias del Hospital Alto Deba y deseamos explicarles algunos aspectos del funcionamiento de nuestra unidad, que creemos deben ser conocidos tanto por los pacientes como por los familiares.

Todo el equipo esta a su disposición para conseguir una atención sanitaria adecuada y eficaz.

A su llegada a Urgencias, personal sanitario experimentado valorará el motivo por el que usted o su familiar han acudido a Urgencias, asignándosele un nivel de gravedad en base a sus necesidades actuales de atención sanitaria, decidiéndose, así mismo, una ubicación dentro de la Urgencia (sala de espera, boxes, consulta...)

Esta valoración inicial nos permite priorizar la atención según el nivel de gravedad, es decir, el orden de llegada no significa que sea el mismo orden de atención.

En los casos en los que el paciente se encuentre en un box-cama y, una vez que se realice la primera valoración, le informaremos y tendrá la posibilidad de que un familiar o acompañante permanezca dentro del box acompañando al paciente. Si durante la estancia en esta área nota algún cambio en el estado de su familiar no dude en avisarnos.

Si usted se encuentra en la sala de espera, la enfermera y/o el médico le llamarán para pasar a la consulta, mientras tanto le rogamos permanezca en esta sala de espera. Si durante su estancia notara cambios en su estado o aumenta su malestar, avísenos.

Es posible que sea necesario realizarle alguna exploración complementaria (análisis de sangre, radiografías, etc.). En este caso su estancia en el Servicio se prolongará.

Recuerde que el tiempo que va a permanecer en Urgencias, es el necesario para que el equipo sanitario valore su estado de salud y le proporcione la atención necesaria.

Nuestro compromiso es atenderle de la mejor manera posible, ofertándole una asistencia de calidad, colabore con nosotros en lo que este de su parte para que esto sea posible.